BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

521

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 28koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, 2012ko apirilaren 18ko Ebazpena indargabetzen duena. Ebazpen horren bidez, 2012rako Gobernu Irekia / Open Government arloan profesionalak espezializatzeko eta trebatzeko beken deialdia egin zen.

Uztailaren 26ko 173/2011 Dekretuak Gobernu Irekia / Open Government arloan profesionalak espezializatzeko bekak arautzen ditu.

Dekretu horren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2012ko apirilaren 18ko ebazpenaren bitartez Gobernu irekia / Open Government arloan profesionalak espezializatzeko eta trebatzeko lau beken deialdia egin zen 2012. urteko ekitaldirako.

Ekonomia, antolamendu eta egokitasun arazoek deialdia aurtengo ekitaldirako ezarritako baldintzetan baliogabetzea gomendatzen dute.

Hautaketa-probak oraindik egin ez direnez, hautaketa-batzordea bildu ez denez, behin- behineko ez behin betiko ebazpen-proposamenik ez dagoenez, ez dago eskatzaileen eskubiderik, ez baitira pertsona onuradunen izaera izatera iritsi eskatzaileok.

Ondorioz, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Indarrik gabe uztea Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2012ko apirilaren 18ko ebazpena. Ebazpen hori 2012rako Gobernu Irekia / Open Government arloan profesionalak espezializatzeko eta trebatzeko beken deialdia egiteko izan zen.

Ebazpen honekin amaitu egiten da administrazio-bidea, eta, beraren aurka, aukeran da berraztertzeko errekurtsoa aurkeztea ebazpena eman zuen organoari. Hilabeteko epea izango da horretarako, jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea ere aukeran izango da, jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasi eta 2 hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 28a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.